

KREDITUAK AITORTZEA LAN ESPERIENTZIAGATIK ETA ESPERIENTZIA PROFESIONALAGATIK (NEGOZIOEN KUDEAKETAKO GRADUA)

Kredituen aitortpena araututa dago UPV/EHUko Graduako Ikasketetan Kredituak Transferitzeko eta Aitortzeko Arautegian (Gobernu Kontseiluak 2012ko maiatzaren 16an onartua, 2012/06/19ko EHAA). Arautegiak honela dio 3. artikuluan:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2012/06/1202806e.shtml>

"Egiaztatutako lan-esperientzia eta esperientzia profesionala ere kreditu gisa aitortu ahalko da titulu ofiziala eskuratzeko, betiere esperientzia horrek zerikusia badu tituluari berezkoak zaizkion gaitasunekin".

Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Antolakuntza Akademikorako Batzordeak, 2023/01/31(e)ko bileran, honako irizpide hauek onartu ditu, indarrean dagoen arautegia ezertan eragotzi gabe:

1.- Egiaztatutako lan esperientzia eta esperientzia profesionala aitortuko da nahitaezko kredituak emanaz Negozioen Kudeaketako Graduako Enpresetako Praktiak irakasgairako, baldin eta esperientzia horrek lotura badauka titulaziori berezko zaizkion gaitasunekin.

2.- Lan esperientziagatik eta esperientzia profesionalagatik aitortuko diren kredituen kopurua (18 kreditu) lotuta egongo da ikasleak eman duen denborarekin titulazioko gaitasunekin bat datozen eginkizunak betetzen.

Ikasleak 450 orduko lan-bizitza egin izana egiaztatuz gero, nahitaezko praktiken 18 kreditu aitortuko zaizkio, baldin eta Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Antolakuntza Akademikorako Batzordearen ustez esperientzia horrek zerikusia badu titulazioko gaitasunekin, eta haren kualifikazio maila parean badago titulazioko gaitasunen mailarekin.

Bestelakoak:

- Egoki baderitzon, Antolakuntza Akademikorako Batzordeak eskatuko du eskatzailea agertzea batzordeak proposatzen duen batzordearen aurrean, hark ebalua dezan noraino datozen bat, izatez eta mailaz, ikasleak aitortzea nahi duen gaitasunak eta titulaziokoak.
- Antolakuntza Akademikorako Batzordeak eskatu ahal izango dio ikasleari esperientzia horren frogak aurkezteko.

Lan esperientziagatik eta esperientzia profesionalagatik kredituak aitortzea eskatzeko, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira, Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Antolakuntza Akademikorako Batzordeak azter ditzan:

- Lan bizitzaren ziurtagiria, Ietik Vera bitarteko kotizazio taldeekin.
- Kontratuaren kopia, edo, autonomoa izanez gero, langile autonomoen araubide bereziko Gizarte Segurantzako altaren kopia.
- Enpresak egindako ziurtagiria, edo, hala badagokio, autonomoak egindako azalpen memoria, lanean edo jardun profesionalean bete dituen zereginak zehazten dituen.
- Ikaslearen azalpen memoria, enpresan egindako zereginak azaltzen dituen.